



FAMILIA-POLITIKAREN ARLOKO PROPOSAMENAK

FORU- ETA UDAL-HAUTESKUNDEAK

Maiatza 2023

 **Hirukide**

EUSKADIKO KIDE UGARIKO FAMILIEN ELKARTEEN FEDERAZIOA

www.hirukide.com

945 25 36 02

AURKIBIDEA

GOGOETA OROKORRAK

PROPOSAMENAK

- Araudia eta proiektzio instituzionala
- Fiskalitatea
- Etxebizitza eta lurra
- Garraioa
- Hezkuntza eta kontziliazioa
- Gaztedia, kultura, aisialdia eta kirola
- Kide ugariko familiak eta bestelakoak

KONPROMISO POLITIKOAK



GOGOETA OROKORRAK

Mende honetan bizi izan ditugun krisi ekonomiko eta sozialetan egiaztatu den bezala, FAMILIA da oraindik ere gure gizarteko erakunderik garrantzitsuena eta beharrezkoena. Izan ere, familia izan da herritar gehienek babesleku eta sostengu bai 2008an hasitako finantzen eta higiezinaren krisi luzean, bai 2020an hasitako koronabirusaren pandemian. Eta gauza bera ari da gertatzen orain bizi dugun krisi-egoeran, energiaren, lehengaien eta erosketa-saskiko produktuen garestitzearekin lotuta.

Baina babes-funtzio garrantzitsua izateaz gain, familia da lehen mailako sozializazio-sarerik oinarritzkoena eta ezinbestekoena, eta ordezkaezinak diren zenbait funtzio betetzen ditu gizartean, hezkuntzarekin, afektuarekin eta harremanekin erlazionatuta. Horrela, familia da gizabanakoaren eta gizartearen garapenerako aktibo nagusia, eremu horretan gertatzen baitira gazteenen sozializazio- eta garapen-prozesu oinarritzkoenak.


Horregatik, beharrezkoa da botere publikoek familiei laguntzea, batez

ere krisi-garaietan, funtzio horiek ahalik eta baldintza onenetan bete ahal izan ditzaten. Baina administrazio eta erakunde guztiek ez dute modu berean ulertzen erantzukizun hori, eta familiei laguntzeko politika eta ekintza desberdinetan islatzen da hori.

Duela ia 25 urte Hirukide sortu zen, familiei laguntzeko eta erakundeek eta administrazioek familiak babesteko politikak ezar ditzaten bultzatzeko asmoz. Ordutik, seme-alabak dituzten familien beharrak eta eskubideak defendatzen ditu oro har, eta kide ugariko familienak bereziki. Irabazi-asmorik gabeko erakunde independentea da, onura publikoko erakunde gisa aitortua, eta bertan biltzen dira Hirukide Araba, Hirukide Bizkaia eta Hirukide Gipuzkoa; lurraldekako hiru elkarte horiek elkarrekin lan egiten dute, familientzat errekonozimendu sozial eta babes handiagoa lortzeko asmoz.

Txosten honetan planteatutako proposamenetatik abiatuta, EKITATEA ETA JUSTIZIA SOZIALA eskatzen ditu Hirukidek familientzat; izan ere, familiek seme-alabak dituztenean, zenbait betebeharrak sortzen dira seme-alabei eta gizarteari begira, eta horiekin batera zenbait eskubide sozial sortu beharko lirateke, familiek duintasunez bete ahal izan ditzaten haien betebeharrak.

Eusko Jaurlaritzak emandako azken datuen arabera, kide ugariko 35.678 familia zeuden 2022ko 4. hiruhilekoan EAEN (kategoria orokorreko 32.313 familia, 3 edo 4 seme-alaba dituztenak, edo 2 seme-alaba, horietako batek desgaitasuna badu edo bestelako egoera baten badago, eta kategoria bereziko 3.365 familia, 5 seme-alaba edo gehiago dituztenak). Kide ugariko familiaren titulua indarrean duten familiak dira horiek denak.



EAEko udalerrri guztietan bizi diren familiak dira, erdi klaseko langile-familiak. Gehienetan bi gurasoak ari dira lanean, batez beste dituzten 3,15 seme-alabak aurrera ateratzeko, eta 700 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte familiako kide bakoitzeko. 2022ko abenduan Espainiako Estatuan Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sareak (EAPN-ES) argitaratutako 'Pobrezia larriaren mapa Espainian' txostenaren arabera, bereziki kezkarria da kide ugariko familien egoera, pobrezia-egoera larrian baitaude familia horien % 27,2. Gainera, guraso bakarreko familien % 26,2 ere egoera berean daude.

Biak elkartuta (kide ugariko familiak eta guraso bakarreko familiak), kolektibo oso garrantzitsua dira gure herrian, kontuan hartuta biztanleria-arazo handia daukagula. Izan ere, desoreka demografiko handia du EAEk, eta biztanleria zahartzen ari da nabarmen, are gehiago azken hamarkadan hasita. Joera horren eragile nagusiak dira jaiotza-tasa txikia,

lan-baldintzak, bizi-itxaropenaren igoera eta emantzipatzeko adinaren atzerapena.


Azken 10 urteetan, % 35 baino gehiago jaitsi dira jaiotzak EAEn, eta egoerak okerrera egin du azken hilabeteetan. Euskal Estatistika Erakundearen azken txostenaren arabera, iazko hirugarren hiruhilekoan % 7,6 jaitsi ziren jaiotzak, eta horixe da oraingoz data horietan izandako jaitziera handiena.

Europar Batasuneko jaiotza-tasarik baxuenetako bat dugunez (Eustaten datuen arabera, 1,24 seme-alaba emakume bakoitzeko, belaunaldi-erreleborako beharrekoak diren 2,10 seme-alaben aurrean), herri zahartua izango da EAE urte batzuen buruan, eta zalantzarik gabe, garatzeko edozein itxaropen eragotziko du horrek. Gainera, joera aldatzen ez bada, pensio-sistema jasanezina izango da etorkizunean.

Eustaten hurrengo grafikoetan ikusten denez, EAEko populazio-piramideak iraulita jarraitzen du. Zehatzago esanda, 1976an, 65 urteko edo gehiagoko herritarrak biztanleria osoaren % 8,3 baino ez ziren. Gaur egun, ordea, herritarren % 24,1 da kolektibo hori. Aitzitik, gazteenen



populazio-multzoa (0 urtetik 19 urtera bitartekoak), erdira murriztu da. 1976an, populazioaren % 36,4 zen kolektibo hori, eta 2023an, berriz, % 18,3 baino ez da.



EBk behin baino gehiagotan adierazi du desoreka demografiko gero eta handiagoa izango dela datozen urteetako makro joera handietako bat. EBko Kontseiluak eskatzen die estatu kideei, Erronka demografikoen aurrean jarraitu beharreko bidea dokumentuan, politika demografikoen esparru bat sortu eta eguneratuta izan dezatela, gizarte-solaskideen parte-hartzearekin. Estatu kideei eskatzen die politika egokiak, berritzaileak eta koordinatuak susta ditzatela, familiei –bereziki haurrak dituztenei– laguntza mota desberdinak emateko, hainbat neurriren bidez: ordaindutako baimenak, prestazioak seme-alabengatik, zerga-kenkariak, gizarte-prestazio egokiak, etxebizitzarako laguntzak, ikasleentzako laguntzak, eta abar. Beraz, inoiz baino beharrezkoagoa da botereek eta administrazio publikoek familiak babestea, modu aktiboan laguntzen baitute EAEko oreka demografikoa hobetzen.

Hala ere, seme-alabak dituzten familiek gizartean duten eragina ez da mugatzen eskualde batean biztanle-kopuru jakin bat mantentzera; horrez gain, familiek funtsezko zeregina dute eskualde bateko elkarbizitzaren oinarri diren ohiturak eta balioak mantentzeko eta transmititzeko orduan. Neurri handi batean, familiek transmititu izan dizkiete ondorengo belaunaldiei lurraldeko ezaugarri jakin batzuk, hala nola hizkuntza eta tradizioak.

Horrela, hezkuntzak eta kulturaren eta ohituren transmisioak euskal gizartea errotzen laguntzen dute, zalantzarik gabe. Zentzu horretan, belaunaldi-erreleboa beharrezkoa da familiek betetzen duten eginkizun horrek betiko iraun ahal izateko; alegia, denborak aurrera egin ahala ez dadin moteldu etorkizuneko familia-unitateetan egin ezin delako. Ondorioz, familia babestuz gero, izan ditzakeen forma guztietan, babestuko da ere bizitza ulertzeko era bat, bizikidetzat ulertzeko era bat, eta, finean, gizartea bera.

Horregatik guztiagatik, eta 2018an Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Eudelek sinatutako Familien eta Haurren aldeko Itunak eta Estrategiak adierazten duen bezala, eskatzen dugu administrazio bakoitzak benetako **politika integral, zeharkako eta erakunde arteko** bat egin dezala **familiei laguntzeko**, nork bere eskumenetatik, eta Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea betez.





PROPOSAMENAK

1. FAMILIA-IKUSPEGIA

EAEko edozein erakundetan araudiak onartzen direnean, ezinbestekoa da **familia-ikuspegia** txertatzea **familia-inpaktuari buruzko txostenen** bidez, era horretan beteko baita oraindik indarrean dagoen Familiei Laguntzeko IV. Planaren ekintzetako batean ezarrita dagoena, bai eta Kide Ugariko Familiak Babesteko 40/2003 Legearen 10. Xedapen Gehigarrian ezarritakoa ere.

2. FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA

Justiziagatik eta ekitateagatik, **familia-errenta estandarizatuaren sistema** ezarri behar da euskal administrazio publiko guztietan. Sistema horrek aukera ematen du familiaren diru-sarrerak hainbanatzeko haren osaeraren arabera (guraso bakarra, desgaitasuna, seme-alaba kopurua, eta abar), eta familietarako laguntzei edo zerbitzuei aplikatu dakie, familia-unitatearen maila ekonomikoak jarduten duenean, bai laguntza jasotzeko baldintza gisa, bai prestazioaren zenbatekoa zehazteko irizpide gisa.

3. ZERGA-SISTEMA JUSTU ETA ZUZENAGOA

Premiazko neurriak behar dira zerga-arloan, eta behar bezala baloratu behar da familiei dagokien kostua, seme-alaba kopuruaren eta haien inguruabarren araberrako desberdintasunak prebenitzeko, murrizteko eta saihesteko.

Justizia soziala bultzatu behar da, desberdinen artean ez ezik, baita berdinen artean ere, horizontala ere izan dadin. Izan ere, baliabide berberak dituzten pertsona guztiek ez dituzte familia-karga edo -erantzukizun berberak, eta zentzu horretan, diskriminazio positiboa egin behar da zergadun gisa onartu behar ditugun zergetan eta kargetan.

4. SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Gaur egun, gazteen lehentasunak aldatzen ari dira, eta horietako askoren bi-zi-planetan ez da sartzen seme-alabak izatea. Hala, EAEko hiru gaztetik batek dio etorkizunean ez duela seme-alabarik izan nahi.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu **sentsibilizazio-ekintzak egitea gizarte-giroa aldarazteko**, haurrek gizartearen onarpen handiagoa izan dezaten, eta herritarrek berriro amets egin dezaten, seme-alaba bat izateko erabaki "ausarta" hartuta eta ama edo aita izatearen BALIO handia aintzat hartuta.



FAMILIA-POLITIKAREN ARLOKO PROPOSAMENAK



ARAUDIA ETA PROIEKZIO INSTITUZIONALA

- **Familia Ikuspegia** txertatzea foru- eta udal-araudietan.
- Errentari lotutako zerbitzu eta laguntza guztietan **Familia Errenta Estandarizatuaren sistema** aplikatzea.
- **Familia Arloa eta Behatokia** sortzea eta indartzea, familiaren prospektiba aztertzeko.
- Seme-alabak dituzten familiekiko **udalerrri lagunkoia** eta **inklusiboak** bultzatzea.
- Amatasun/aitatasunari eta erantzunkidetasunari balioa emateko **sentsibilizazio-kanpainak** egitea.



FISKALITATEA

- PFEZan, ondarearen gaineko zergan eta beste zerga batzuetan, seme-alaba gehien dituzten familien **tratamendu fiskala** hobetzea eta harmonizatzea.
- Hobariak ezartzea eta harmonizatzea **udalen zerga, tasa eta prezio publikoetan**, kide ugariko familientzat.



ETXEBIZITZA

- **Leku gehiago eta lehenasuna** ematea seme-alaba gehien dituzten familieni.
- **Enpresa- eta industria-poligonoetan** lurzorua erreserbatzea, hezkuntza-ekipamendurako eta eskola-jantokirako.
- **Etxebizitza-kooperatibak** sustatzea kide ugariko familientzat.



GARRAIOA

- **Garraioa doan** izatea hurrek 12 urte bete arte, eta pixkanaka, adin-nagusitasunera arte zabaltzea neurri hori.
- **Garraiobide-aldaketak doan** izatea edozein garraio publikotan, herri/hiri barruan zein herri/hiri artean.
- **Garraio publikoaren maiztasuna** handitzea baserrialdeetan.
- **Aldi baterako eta txandakako aparkalekuak** eskaintzea egoera zaugarrian dauden familiei (ikastetxeetan jasotzea, haurdunak...).
- **Garraiorako hobaria** ematea ikasketa aratuak edo itunduak (Batxilergoa, LH edo Unibertsitatea) eskaintzen ez diren eremuetako **ikasleei**.
- Garraio publikoa egokitzea, eta haurren gurditxoetarako behar adina **espazio gordetzea**.



HEZKUNTZA ETA KONTZILIAZIOA

- Udalen haur-eskoletan, **egokitzapen-aldiak** haurri egokitzea.
- Pizgarri fiskalak eta lehiaketa publikoetan puntuazio handiagoa ematea seme-alabak dituzten familiei **kontziliazioa erraztu eta ordutegiak arrazionalizatzen** dizkieten enpresei.



GAZTEDIA, KULTURA, AISIALDIA ETA KIROLA

- Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak eskaintzea **oporraldi guztietan edo eskolaz kanpoko aldi guztietan**.
- Udal- eta foru-**udalekueetan** eta **ludoteketan** kupo bat gordetzea eta hobariak harmonizatzea kide ugariko familientzat.
- Seme-alaba gehien dituzten familiei dirulaguntzak ematea **aisialdi- eta kultura-jardueretarako**.



KIDE UGARIKO FAMILIAK

- Kide Ugariko Familiaren Titulua **emateko/berritzeko epeak** hobetzea, eta Araban **online tramitazioa** eskaintzea.
- Kide Ugariko Familiaren Titulua **berritzeko epea** 4 urtera luzatzea, seme-alabek 21 urte betetzen dituztenean.



PROPOSAMENAK



ARAUDIA ETA PROIEKZIO INSTITUZIONALA



FORU- ETA UDAL-ESKUMENA

- **Familia-ikuspegia** aintzat hartzea **FAMILIA-INPAKTU**ari buruzko **txostenen** bitartez, familian ondorioak (jendartea, hezkuntza, etxebizitza eta abar) dituzten foru- eta udal-araudiak, lehiaketak eta oinarri publikoak onartzeko prozesuan, Familiaren Behatokiaren eginkizunetatik eta Familiei Laguntzeko IV. Planaren 116. ekintzatik eratorrita, eta Kide Ugariko Familiak Babesteko 40/2003 Legearen 10. Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera.
- **Familia-errenta estandarizatuaren sistema, FEE** (154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa) aplikatzea, familia-errenta kide kopuruaren eta familiaren osaeraren arabera hainbanatzen duena, familientzako laguntza edo zerbitzuetan, baldin eta horiek eskuratzeko baldintza edo prestazio horren zenbatekoaren irizpidea familia-unitatearen

errentak baldintzatzen badu. Horrela, lurraldeen arteko konparaziozko bidegabekeriak saihestuko lirateke, baita udalerrien artekoak ere, gehikortasun eta ekitate justua lortuz.

- Alkatetzaren eta aldundiaren mende **Familia Arloak** sortzea eta indartzea, eta **Behatoki** bat sortzea, EAEko **familia-prospektiba eta erronka demografikoa** aztertzeke; izan ere, zeharkako gaia da, eta sail askori eragiten die, ez soilik gizarte-gaietakoari.
- **Informazio-, aholkularitza- eta laguntza-programa publikoak** sustatzea seme-alabak dituzten familientzat, bai eta Familia Politikaren oinarri izan behar duten balio nagusiei eta amatasun/aitatasunaren eta erantzunkidetasunaren balioari buruzko **sentsibilizazio-kanpainak** ere.
- Seme-alabak dituzten familiekiko **inklusiboak eta lagunkoiak** izateagatik nabarmentzen diren EAEko udalak errekonozitzea, baldin eta haien aldeko neurriak, zerbitzuak eta laguntzak badituzte.

Hirudiek “fam” ziurtagiria sortu du hori aitortzeko, eta EBko hainbat herrialdetako udalerriei ziurtagiri horiek ematen ari da ELFAC Kide Ugariko Familien Europako Konfederazioa.



FISKALITATEA

FORU-ESKUMENA

PFEZ ETA ONDAREA:

- **Zerga-oinarrian 6.000-7.000 euroko murrizketa** ezartzea **ondorengo bakoitzeko**, modu horretan zergaduna (kasu honetan, seme-alabak dituzten familiak) gaitasun ekonomiko erreal eta eskuragarriaren arabera zergapetzeko, egungo kuotaren arabera kenkarien ordeztu.

Edo, hala badagokio, **kuotako kenkariak** % 20 handitzea ondorengo bakoitzeko, 1. eta 2. seme-alabengatik, eta % 50 hurrengoengatik. Urtero eguneratzea gutxienez KPIaren arabera, eta **kenkari-osagarriaren** zenbatekoa handitzea 6 urtetik aurrera, eta 18 urtera arte luzatzea, harik eta ardurapeko seme-alabengatik laguntza zuzenik ez dagoen arte, EBko gainerako herrialdeetan bezala.

- **Kide ugariko familien kenkaria** sortzea 3 seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat eta beste berezitasun batzuk dituzten seme-alabak dituztenentzat, familia horiek EAEko demografiari egiten dioten ekarpenagatik.
- **“Kontzilia” kenkaria** ezartzea mendekotasuna duten adingabeak edo adinekoak zaintzeko eta artatzeko pertsona bat kontratatu behar duten pertsonentzat, lana eta familia uztartu ahal izan ditzaten.
- Kide ugariko familientzako **etxebizitza-hobari**en kreditu fiskala handitzea, kontuan hartuta familia-unitateko kide kopurua; izan ere, familiaren tamainaren arabera da etxebizitzaren kostua eta azalera.

- Familiako **kenkariak** beti “**monetizagarriak**” izan daitezen ahalbidetzea, edo **zerga negatiboa** aplikatzea behar besteko kuota osora iristen ez denean.
- **Lan-etekin**etatik salbuestea seme-alaben hezkuntzarako edo osasun-asegurutarako **gauzatan** ematen direnak, inolako mugarik gabe.
- **Ondarearen** gaineko zergan, familia-unitateko kide kopurua kontuan hartzea ohiko etxebizitzagatik salbuetsitako muga.

BESTE ZERGA BATZUK:

- **Toki Ogasunen Foru Araua** aldatzea udalek % 95era arteko hobariak eman ahal izateko **eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (EIOZ) eta gainbalioen gaineko zergan**, familia-unitateko kide kopurua handitzeagatik obrak egin edo beste etxe bat erosi behar izanez gero. EIOZ zergan ematen diren bezalaxe desgaitasuna duten pertsonentzat edo bestelako arrazoiengatik (bero-aprobetxamendua, baserrien birgaikuntza...), edo gainbalioan “mortis causa”, ondorengoengatik, aurrekoengatik, eta abar ematen diren bezalaxe.
- Familia-unitateko kide kopuruaren arabera **egotz daitekeen gutxieneko balioaren** muga handitzea, **Bizkaiko** kide ugariko familiei **OHZn** eskaintzen zaien **hobarian**.
- Kide ugariko familientzako hobariaren irizpideak harmonizatzea **ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan**. Horrela, Gipuzkoan eta Bizkaian behin baino gehiagotan eskatu ahal izango da, eta Araban, berriz, udalerrri berean kokatutako aurreko ohiko etxebizitza 18 hilabeteko epean salduz gero onuradun izateko salbuespena berreskuratuko da.

UDAL-ESKUMENA

- **Udalaren zergetan (OHZ, EIOZ, TMIZ, gainbalioa,...) hobariak** ezartzea familientzat, kide gehiago izateagatik eta ibilgailu edo etxebizitza handiagoak behar izateagatik zigortuta baitaude.

Gaur egun, EAEko udalen % 55ean eta % 39an aplikatzen da OHZ eta TMIZ zergen hobaria, hurrenez hurren, baina irizpideak desberdinak dira errentari lotuta daudenean. Hori dela eta, irizpide harmonizatu eta homogeneo bat eskatzen da, kontuan hartuta familia-errenta estandarizatua (FEE).

UDALAK	Hobaria OHZ	Hobaria TMIZ
ARABA (51)	26	24
BIZKAIA (112)	33*	46
GIPUZKOA (88)	67	42

*Bizkaian berreskuratu egin da OHZren hobaria 2023rako, baina oraindik asko dira hori aplikatzen ez duten udalak.

- Kide ugariko familiei **hobariak ematea uraren tasan**, haien kontsumoa ez zigortzeko kide gehiago izateagatik, eta **prezio publikoetan** (kiroldegiko matrikulak, kuotak eta jarduerak, musika-eskolak eta beste udal-jarduera batzuk), parte hartzeko aukera berberak izan ditzaten.



ETXEBIZITZA ETA LURRA

UDAL-ESKUMENA

- Udal promozioetan azalera handiagoko **etxebizitza-kupo** bat **gordetzea eta eraikitzea** (90 m2 baino gehiagokoak) kide ugariko familientzat, ezaugarri horiek betetzen dituzten eskatzaile-ehunekoaren arabera.
- Kontuan hartzea **familia-ikuspegia**, hots, familia-unitateko kide-kopurua, **udal-sustapen publikoetarako** edo sektore pribatuarekin itundutako sustapenentarako **oinarriak ezartzeko orduan**, dela etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintzak ezartzeko, dela etxebizitzak diseinatzeko, dela horiek, garajea eta/edo ganbara/trastelekua esleitzeko.
- Udalak **hutsik dituen etxebizitza handiak** kide ugariko familien kolektiboari eskaintzea, alokatzeko edo erosteko.
- Enpresa- eta industria-poligonoetan **lurra erreserbatzeko** aukera aztertzea, **hezkuntza-ekipamenduak eta jantokiak** eraikitzeko, bertako langileek lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea erraztuko du eta.
- **Etxebizitza-sustapenak egitea kooperatiba-erregimenean** (BOE edo tasatua), saihesteko kide ugariko familia asko beren etxebizitzetan pilatuta bizitzea (gaur egun, % 18 baino gehiago).

GARRAIOA

FORU-ESKUMENA

- **Garraioa doan** izatea haurrek 12 urte bete arte, eta pixkanaka, adin-nagusitasunera arte zabaltzea neurri hori.
- **Garraiobide-aldaketak doan** izatea edozein garraio publikotan, herri/hiri barruan zein herri/hiri artean.
- **Garraio publikoa indartzea**, eta **baserrialdeetan** maiztasuna hobetzea, Arabako edo Bizkaiko eremu batzuetan despopulazioa saihesteko.

COMPETENCIA FORAL - MUNICIPAL

- **Garraiorako hobia** ematea ikasketa arautuak edo itunduak (Batxilergoa, LH edo Unibertsitatea) eskaintzen ez diren eremuetako **ikasleei**, baldin eta 20 km baino gehiago mugitu behar badute.

COMPETENCIA MUNICIPAL

- Garraio publikoa (autobusa, trena, tranbia edo funikularra) egokitzea, haurren orgatxoak uzteko nahikoa **toki erreserbatuz**. Horrez gain, **segurtasun-sistema** sinpleak jartzea orgatxoak lotzeko, horiek arinak izanik garraioan atzerapenik ez eragiteko.
- Ikastetxeetatik hurbil **zama-lanetarako aparkalekuak** gaitzea edo partekatzea seme-alabak bertan utzi behar dituzten **familientzat**,

ikastetxeetako ohiko sarrera- eta irteera-ordutegietan eta denbora-epe jakin batean.

- **Haurdun dauden emakumeei aparkaleku-plazak gordetzea haurdunaldiaren hogeigarren astetik aurrera**, bide publikoan edo aparkaleku publikoetan, udalak aldi baterako igorritako akreditazioaren eta medikuaren ziurtagiriaren bidez, eta neurria 0 eta 0+ taldeko haurrentzat ere zabaltzea.

HEZKUNTZA ETA KONTZILIAZIOA

FORU- ETA UDAL-ESKUMENA

- **Pizgarri fiskalak eta lehiaketa publikoetan puntuazio handiagoa** ematea lanaren eta familiaren kontziliazioa eta gurasoen erantzunkidetasuna sustatzen duten enpresei (kide ugariko familietako guraso edo seme-alaba langabeen kontratazioa; lan-ordutegien arrazionalizazioa eta malgutasuna, eskola-ordutegietara egokitzeko; mugikortasun geografikoa saihestea...).
- Kide ugariko familiei **hobariak harmonizatzea udalekuetan**, eta kolektibo horrentzat % **5eko kupoa gordetzea**, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzat egiten den bezalaxe, familia horiek zailtasunak dituztelako seme-alabak eskolarik gabe dauden aldietan lana eta familia uztartzeko.
- **Foru- eta udal-eskumeneko udalekuak sustatzea oporraldi guztietan**, seme-alabak dituzten familien beharrei erantzuteko.

UDAL-ESKUMENA

- **Udalen Haur Eskoletan egokitzapen-aldiak malgutzea**, haur bakoitzaren berezitasunei egokituta.
- **Liburutegi publikoetan ordutegia zabalagoak eta etengabeak** eskaintzea astegunetan zein asteburuetan, batez ere azterketa-garaietan, ikasleek errendimendu akademikoa hobetu ahal izateko.



GAZTEDIA, KULTURA, AISIALDIA ETA KIROLA

FORU- ETA UDAL-ESKUMENA

- Ikastetxeetan **aisialdiko ekintzak** sustatzea **oporraldietan**, ordutegiak familien beharrei egokiturik (ikasturteko ordutegi bera, adibidez), lana eta familia ahalik eta egokien uztartzeko.

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 19. eta 20. artikuluek ezartzen dutenaren arabera:

19. artikulua.- Familiei hezkuntzaren arloan laguntzeko berriazko neurriak.
d) Bestelako laguntza-neurri osagarriak ere hartuko dira, curriculumetik aparte, aurrez ezarritako ordutegi eta egutegiko arretaren osagarri, norberaren bizitza, familia eta lana uztartu ahal izateko gizonak zein emakumeek.

20. artikulua.- Familiei kultura-, kirol-, aisia- eta astialdi-arloetan laguntzeko berriazko neurriak.
e) Ikastetxeak oporretan direnerako, astialdi- eta aisia-jarduerak antola daitezten bultzatzea, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzeko zerbitzu gisa, familien beharren arabera.

- **Aukera-berdintasuna** ematea kide ugariko familiei kultura eta ohiturak ezagutu eta haiez gozatzeko. Horretarako, **dirulaguntzak eman behar zaizkie** hori sustatzen duten **guneei eta ekintzei**: aterpetxeak, museoak, hizkuntza-eskolak, kultura-ekintzak, eta abar.
- Maila publikoan edo finantzaketa publikoaren bitartez antolatzen diren **kultura-, gizarte-, hezkuntza- eta kirol-ekintzetarako** gonbidapenak ematea kide ugariko familien elkartei, haiek familien artean zozketatu ditzaten.



KIDE UGARIKO FAMILIAK ETA BESTELAKOAK



FORU- ETA UDA-ESKUMENA

- **Hitzarmenak** egin edo dirulaguntza izendunak eskaintzea **eta dirulaguntza-lerro berriak irekitzea**, baita aurrekontu-partida handiagoak jartzea ere, familia-eremuko eta, hortaz, familia-elkarteetako jarduera, proiektu edo zerbitzuetan (gurasotasun positiboari buruzko prestakuntza...).



FORU-ESKUMENA

- Bizkaian **Kide Ugariko Familiaren Titulua** emateko eta berritzeko epeak laburtzea, eta Araban **online tramitazioa** eskaintzea.

- Kide Ugariko Familiaren Tituluak **berritzeko epea** 4 urtera luzatzea, seme-alabek 21 urte betetzen dituztenean, zinpeko aitorten baten bidez.





ALDERDIAREN KONPROMISO POLITIKOAK

Alderdiak lurraldea edo udalerriak gobernatzeko babes nahikoa lortu ala ez, konpromisoa eskatzen dugu seme-alabak dituzten familien baldintzak hobetzeko neurriak aplika daitezzen foru- eta udal-administrazioetan.

Konpromisoa honela zehaztuko litzateke:

- **Elkarteak aldian behin batzarrak egitea** familia-politikak garatzen dituzten **alderdiko organoekin**, familien beharren jarraipen egokia egiteko eta lurralde eta udal mailan adosturiko neurriak ezartzeko.
- Kide Ugariko Familien Elkarteak presentzia izatea **kontseilu, foro eta batzordeetan**, proposamenak edo eskaerak egiteko beharrezko tresna gisa, ezagutzera emateko seme-alabak dituzten familien errealitatea oro har, eta kide ugariko familiena bereziki.
- Dokumentu honetan **eskatutako neurriak modu homogeneoan eta harmonizatuan betetzea**, lurralde eta udalerrri guztietan aplika daitezzen, bidegabeko konparazioak saihestuz.